

EGARA

Funtsezko elkarteak

Gure proiektua ondo atera dadin, guretzat funtsezkoak dira honako bazkide eta hornitzaile hauek:

1. **Makina diseinatzen eta fabrikatzen lagunduko diguten enpresak**
Gure makina plastikoa identifikatu, zenbatu eta dirua emateko gai izan dadin, ingeniari-taldeen laguntza behar dugu.
2. **Osagai tekniko hornitzaileak**
Sentsoreak, pantailak, egitura metalikoak, txipak eta makina osatuko duten pieza guztiak hornituko dituzten enpresak.
3. **Birziklatze-enpresak**
Guk jasotako botilak bideratuko dituzten eta birziklatze-prozesua egingo duten bazkideak.
4. **Ordainketa-sistemen hornitzaileak**
Makina bidezko ordainketa (dirua, txartela edo aplikazio bidezkoa) segurtasunez egiteko beharrezkoak diren enpresak.
5. **Mantentze- eta laguntza-teknikoa emango duten taldeak**
Makina matxuratzen bada edo arazoak sortzen badira, berehala konponduko duten profesionalak.
6. **Udalak, merkataritza-guneak eta kokapena emango diguten erakundeak**
Gure makinak jende askok ikus eta erabil ditzan, toki estrategikoetan jartzeko baimena eta espazioa eman behar digute.

Gure proiektua ondo atera eta denboran zehar funtziona dadin, bazkide eta hornitzaile hauek ezinbestekoak dira guretzat:

1. Gure makinak ondo, segurtasunez eta etengabe funtzionatzeko teknologia egokia eta osagai fidagarriak behar ditugulako.
2. Jasotzen ditugun botilak birziklatze-enpresek modu profesionalean kudeatzea behar dugulako, gure ingurumen-helburuak betetzeko.

EGARA

3. Ordainketa-sistema seguru eta fidagarria izateak erabiltzaileek gure sisteman konfiantza edukitzea bermatzen duelako.
4. Mantentze eta laguntza-teknikoko taldeek arazoak azkar konpondu behar dituztelako makina beti erabilgarri egon dadin.
5. Kokapen egokiak gure proiektuaren ikusgarritasuna eta arrakasta handitu dadin.